



FARMAZIA – ARABAKO ESI-A
Lehen Mailako Arretako Farmazia
e-mail.: farmacia.primariaosiaraba@osakidetza.eus

2025eko Abuztua	
AEMPS: GIZA ERABILERARAKO MEDIKAMENTUEN SEGURTASUN-BULETINA	1 Jarraitu irakurtzen
AEMPS: SEGURTASUN OHARRA Klozapinarekin tratatutako pazienteen kontrol hematologikoen inguruko gomendioen eguneratzea	2 Jarraitu irakurtzen
OSASUN MINISTERIOAREN PRENTSA OHARRA D bitaminaren erabilera arrazionala	3 Jarraitu irakurtzen
BERRITASUNAK PRESIDEN Formula magistral berria: takrolimusa % 0,03 kolirioa	4 Jarraitu irakurtzen
OROIGARRIA: PRESBIDE ETA BIDAIA LUZEAK Nola jokatu denboraldi luze batean EAEtik kanpo egongo delako medikazioa eskatzen duen paziente baten aurrean	5 Jarraitu irakurtzen
ARGITALPEN INTERESGARRIAK • INFAC buletin berria: "Medikamentuak hartzea haurdunaldian" • i-botika fitxa berria: Zer gertatzen zaio nire azazkalari? Onddoak al dauzkat? • Eusko Jaurlaritzako Osasun SailarenTxertaketaren Eskuliburuaren eguneratzea • 2025eko Beroaren Plana • BMJn argitalpen berria: "Azido azetilsalizilikoaren erabilera egokia" • Opioideen erabilera min kroniko ez-onkologikoan • Asma tratatzeko GEMA 5.5 gidaren eguneraketa	6 Jarraitu irakurtzen
ERREZETA BIDEZ PRESKRIBATZEN DIREN MEDIKAMENTUEI BURUZKO HILABETEKO BERRITASUNAK	7 Jarraitu irakurtzen
MEDIKAMENTUEN HORNIDURA-GABEZIAK ETA -BERREZARPENAK	8 Jarraitu irakurtzen
9. KLONAZEPAMA DUTEN MEDIKAMENTUAK ERREZETA ELEKTRONIKO BIDEZ AGINTZEA ETA EMATEA OSASUN SISTEMA NAZIONALEAN	9 Jarraitu irakurtzen

1

AEMPS: GIZA ERABILERARAKO MEDIKAMENTUEN SEGURTASUN-BULETINA

2025eko uztailen, [Giza Erabilerarako Medikamentuen Segurtasunari buruzko Buletina](#) argitaratu da, farmakozaintzarako datuen aldizkako ebaluaziotik eratorritako segurtasun-informazio berria barne hartzen duena. Ebaluatutako medikamentuen artean, honako hauek nabarmenduko ditugu:

- **Finasterida:** ideia gintza suizidaren arriskua minimizatzeko gomendio berriak.
- **Denosumaba:** denosumab bidezko tratamendua eten ondoren, hezur-dentsitate minerala (HDM) murriztea espero da. HDMa monitorizatzea eta tratamendu alternatibo bat hausnartzea gomendatzen da.
- **Sumatriptana eta naproxenoa/sumatriptana edoskitzaroan:** bularretako min edota titiburu-min igarokorraren kasuak. Horrez gain, sumatriptana amaren esnera igarotzen dela ezagutzera ematen da.
- Farmakozaintzako datuen ebaluazioaren ondoren identifikatutako beste kontrako efektu batzuk:
 - **Diklofenakoa** (formulazio sistemikoak): medikamentuagatik erupzio finkoa, medikamentuagatik anpoila-erupzio finko orokortua.
 - **Dulaglutida:** disgeusia.
 - **Sertralina:** A azil-koentzima (acil-CoA) deshidrogenasaren eskasia anizkoitza (DMAD).
 - **Sulfametoxazola, trimetoprima (kotrimoxazola):** zirkulazioko shocka.

[HASIERA-ra Itzuli](#)

2

AEMPS: SEGURTASUN OHARRA

[Klozapinarekin tratatutako pazienteen kontrol hematologikoen inguruko gomendioen eguneratzea](#)

Sendagaien Europako Agentziaren (EMA) Farmakozaintzako Arriskuak Ebaluatzeko Batzordeak (PRAC) klozapina bidezko tratamenduarekin lotutako neutropeniaren eta agranulozitosiaren arriskuari buruzko ebidentzia zientifiko eskuragarria berrikusi du, eta ondorioztatu du antipsikotiko horrekin tratatutako pazienteen **kontrol hematologikoen maiztasuna murriztu behar dela**. Gainera, gaur egungo ebidentziak **analisiak neutrofiloen kontaketa absolutuan oinarritu behar direla** iradokitzen du; ondorioz, leukozito-kontaketa egiteko eskakizuna kendu da. ([AEMPSen nota](#))

[HASIERA-ra Itzuli](#)

3

OSASUN MINISTERIOAREN PRENTSA OHARRA

[D bitaminaren erabilera arrazionala](#)

Osasun Ministerioak [prentsa-oharra](#) argitaratu du. Bertan, herritarrei eta sanitarioei gogorarazten zaie oso garrantzitsua dela D bitaminaren erabilera zuzena eta ebidentzia zientifikoan oinarritutakoa egitea, bai analisi diagnostikoak eskatzeari dagokionez, bai osagarriak agintzeari dagokionez.

Era berean, Euskadin berriki berrikusi da D bitaminaren erabilera egokia herritarrei zein profesionalei zuzendutako dokumentu hauetan:

- Medikamentuak zentzuz erabiltzeko gomendioak: [D bitamina helduengan](#) (2022ko otsaila).
- i-Botika: [D bitamina pertsona helduen kasuan](#) (2021. urtea).

[HASIERA-ra Itzuli](#)

4 BERRITASUNAK PRESBIDEN

Formula magistral berri bat sartu da Presbiden:

CN 140567	FM TAKROLIMUSA (0,03%), 10 ML-KO KOLIRIOA
-----------	---

Preskripzio elektronikoaren kasuan baino ez dago finantzatuta.

eRezetan sartzen diren formula magistralen zerrenda eguneratua eta haien finantzaketa-baldintzak sailaren webgunean kontsulta daitezke, [esteka honetan](#) klik eginez.

[HASIERA-ra Itzuli](#)

5 OROIGARRIA: PRESBIDE ETA BIDAIA LUZEAK

Komeni da honako hau gogoraraztea Osakidetzako profesionalei:

Presbiden, kreditu gehigarria ez da erabili behar Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo (beste autonomia-erkidego batzuetara edo atzerrira) hiru hilabetez edo gehiagoz joaten diren pazienteentzat; izan ere, erabilera honek pazienteek behar duten baino medikazio gehiago kontsumitzea/metatzea eragin dezake.

Estatu barnean nahiz Europako hainbat herrialdetan (Portugal, Croacia, Polonia, Finlandia, Estonia, República Checa, Letonia, Grecia eta Lituania) medikamentua osasun-txartelarekin eskura dezakete, [elkarreragingarritasuna](#)ren bidez, edozein farmazia-bulegotan (Europar NANA ere behar da).

Elkarreragingarritasunik ez duten herrialdeetara doazen kasutan nola jokatu behar den ondorengo taulan azaltzen da:

BIDAIA ATZERRIKO HERRIALDEETARA, ELKARRERAGINGARRITASUNIK GABE

Hilabete baino gutxiagoko joan-etorrietan: Medikazioa farmazia-bulegoan jaso dezake [joan baino lehen](#).

Hilabetetik gorako joan-etorrietan: Errezetak inprimatu daitezke, [gehienez ere 3 hilabetera](#) arte, hori baita AEMPSek baimentzen duen gehieneko kopurua.

HORRETARAKO:

Presbidetik **inprimatutako errezetek** ondoz ondoko datak dituztenez (adibidez, uztailak 22 / abuztuak 19 / irailak 16), medikazio hori farmazian jaso ahal izateko, atzerrira joan aurretik, inprimatutako errezeten **data zuzendu** behar da, gaurko data izan dezaten. Bestela, farmaziak ezin izango du medikazioa entregatu.

Mediku batek bakarrik zuzen dezake errezeta (erizainak ere bai, efektuak eta osagarriak badira).

Horretarako, medikuak honako hau egin behar du:

- Presbidek errezetari esleitu dion **data ezabatu**. Uneko **data idatzi**.
- Ondoan idatzi: "**Zuzenketa**". **Sinatu**. Errezeta **zigilatu**.

Informazio hau kontsultatzeko: [Intranet Korporatiboa > Salud Atención > Farmazia > Preskripzio elektronikoa > Presbide > Hobekuntzen aurkibidea > eRezetan ematea > Estatu barneko eta nazioarteko bidaiak](#)

[HASIERA-ra Itzuli](#)

INFAC buletin berria: "Medikamentuak hartzea haurdunaldian"

Buletin honen helburua haurdunaldiko patologia ohikoenetarako gomendatzen diren medikamentuen erabilerari buruzko informazioa eguneratzea da. Arlo hauetako medikamentuak berrikusten dira, besteak beste: anemia eta eskasia-egoerak, digestio-patologiak, infekzioak eta txertoak, parasitosiak eta patologia neurologikoak zein psikiatrikoak.

Dokumentuen estekak:

[Buletina](#)

[Aurkezpena](#)

i-botika fitxa berria: Zer gertatzen zaio nire azazkalari? Onddoak al dauzkatz?

Herritarrei informazioa emateko i-botika fitxa berria argitaratu da, **onikomikosiari** buruzkoa. Bertan, patologia honen prebentzioarako hainbat gomendio jasotzen dira.

[Esteka](#) honetan kontsultatu daiteke fitxa.



Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren Txertaketan Eskuliburuaren eguneratzea

[Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren Txertaketan Eskuliburua](#) eguneratu da, urtarirlean jakinarazitako aldaketekin.

Urtarrileko informazio oharra: [Txertaketa- eta immunizazio-egutegiaren eguneraketa](#)

2025eko Beroaren Plana



Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak, Segurtasun Sailarekin eta Euskalmetekin lankidetzan, [2025eko Bero Plana](#) aurkeztu du. Plan hori ekainaren 1etik irailaren 30era bitartean garatuko da, eta bere helburua gehiegizko tenperaturak herritarren osasunean duen eragina prebenitzea eta murriztea da, urteko hilabete beroenetan.

Aurten berrikusitako parametroekin eguneratu da, eta arreta berezia eskaintzen dio arriskudun biztanleriari: 4 urtetik beherakoak, adinekoak, haurdunak, gaixotasun kronikoak dituztenak eta jarduerara fisikoa kanpoan egiten dutenak.



[Babes zaitez BEROTIK](#)

[Jarduerara fisikoa eta BEROA](#)

Bestalde, AEMPSK [sendagaiei eta beroari](#) buruzko atal bat du bere webgunean.

British Medical Journalen argitalpen berria: "Azido azetilsalizilikoaren erabilera egokia"

Azido azetilsalizilikoaren (AAS) erabilera egokiari buruzko [artikulu](#) bat argitaratu da BMJn, gure ingurunean gehien erabiltzen den botiketako bat. Gainera, intereseko laburpenak eta infografiak ditu.

Opioideen erabilera min kroniko ez-onkologikoan

Min kroniko ez-onkologikorako analgesiko opioideen erabilera optimizatzeko Planaren esparruan, profesional sanitarioentzako laguntza-dokumentu bat argitaratu berri da, "Uso de opioides para el Dolor Crónico no Oncológico" izenekoa, OSNren helburuak betetzen laguntzeko. Dokumentu horrek eguneroko jardunerako algoritmo eta eranskin oso erabilgarriak ditu.

[Profesional sanitarioentzako laguntza-dokumentua](#)

[OSNn Analgesiko opioideak min kroniko ez-onkologikorako erabiltzeko Plana](#)

Asma tratatzeko GEMA 5.5 gidaren eguneraketa

Asma Maneiatzeko Espainiako Gidaren 2025eko eguneraketa argitaratu da ([GEMA 5.5](#)).

Edizio honetako aldaketa esanguratsuenak honako hauek dira:

- Jaiotzako oso pisu txikia (< 1500 g) sartu da asma garatzeko arrisku-faktore gisa.
- Asmaren helburu terapeutikoa eguneratu da, xede hauekin: erremisio klinikoa azkar lortzea eta mantentzea, exazerbazioak prebenitzea, sintomak kontrolatzea eta biriken funtzioa optimizatzea.

[HASIERA-ra Itzuli](#)

7

ERREZETA BIDEZ PRESKRIBATZEN DIREN MEDIKAMENTUEI BURUZKO HILABETEKO BERRITASUNAK

Hauek dira abuztuko berritasunak:

2025eko abuztua		
	Netilmizina/ Dexametasona	Netdex® 3 mg/ml + 1 mg/ml, 15 dosi bakarreko ontzi (0,4 ml) gel oftalmikoa. Finantzatutako indikazio berria: - begiaren aurreko segmentuko hanturazko afekzioen tratamenduan, ebakuntza osteko kasuak barne, bakterio-infekzioa edo bakterio-infekzioaren arriskua dagoenean. Fitxa teknikorako esteka
	Brexpiprazola	Rxulti® 1, 2, 3 y 4 mg, pelikulaz estalitako konprimituak. Indikazioa zabaltzea, ez finantzatua: - eskizofreniaren tratamenduan, 13 urteko edo gehiagoko nerabeetan. Fitxa teknikorako esteka

 Indikazioa, finantzaketa edo preskripziorako eta emateko baldintzak zabaltzea.

2020ko urtariletik aurrerako berrikuntzak biltzen dituen [dokumenturako esteka](#).

[HASIERA-ra Itzuli](#)

8

MEDIKAMENTUEN HORNIDURA-GABEZIAK ETA -BERREZARPENAK


Hilabete honetako HORNIDURA-GABEZIARIk garrantzitsuenak:

Ziklofosfamida 50 mg konprimituak, Mizolastina 10 mg konprimituak, Tiaprida 100 mg injektagarria, Klortetraziklina 5 mg/g pomada oftalmikoa, Kloranfenikol/Dexametasona pomada oftalmikoa.

HORNIDURA-BERREZARPENAK:

Pylera 140 mg/125 mg/125 mg 120 kapsula, Evopad 75 mcg/24h partxeak, Imiquimod 250 mg krema, Tiamina 300 mg konprimituak eta 100 mg/ml soluzio injehtagarria, Rifampizina 300 mg 24 kapsula eta soluzioa, Nitrofurantoina 10 mg/ml suspentsioa, Pirazetam 60 mg, Metotrexato 2,5 mg konprimituak, Isosorbida mononitratoa 40 mg konprimituak.

PRESBIDEn "Hornidura eza" botoia eskuragarri dago, "Preskripzioen kontsulta" pantailaren beheko aldean, hornidura-gabeziei buruzko informazio erabilgarria erakusten duena.



Hornidura-gabeziak esteka honetan kontsulta daitezke:

- Presbiden: [Hornidura-gabezien taula](#)
- CIMA-AEMPSen: [AEMPSen medikamentuen hornidura arazoak](#)

[HASIERA-ra Itzuli](#)

9

KLONAZEPAMA DUTEN MEDIKAMENTUAK ERREZETA ELEKTRONIKO BIDEZ AGINTZEA ETA EMATEA OSASUN SISTEMA NAZIONALEAN

Preskripzio elektronikoa duten pazienteei egindako klonazepam errezeten inprimaketa berrien ondorioz, gogorarazi behar da Osasun Ministerioak ebatzi zuela 2024ko urtarrilaren 1etik, klonazepam duten medikamentuak (**Clonazepam** EFG eta **Rivotril®**) errezeta elektronikoko bidez baino Osasun Sistema Nazionalean agindu eta eman ezingo dira.

Helburua da klonazepamaren erabilera desegokia edo abusua saihestea osasun publikoko arazo bat sor dezakeenean, eta fitxa teknikoetan baimendutako indikazio eta posologietako erabilera optimizatzea.

Informazio-oharra [hemen](#).

[HASIERA-ra Itzuli](#)

Lehen Mailako Arretako Farmazia

Farmazialariak: Arantza Hernández, Javier Martínez, Inés San José eta María Prieto.

Iradokizunak edo iruzkinak egiteko, bidali posta elektronikoa helbide honetara:

ARABAKo ESI-A: farmacia.primariaosiaraba@osakidetza.eus



Argitalpen honen edukia Osakidetza Lehen Mailako Arretako farmazialariek egindako hileroko buletinetik egokitu da FarmaHitzak buletinak Osakidetza intranetean daude eskuragarri hurrengo [estekaren](#) bidez